



Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren 2021-2024 aldirako Kanpo Ekintzarako I. Planeko oinarrien agiria. Herritarrekiko Harremanetako Departamentua. Nafarroako Gobernua.

0. AURREKARIAK

1982tik hasita, Nafarroako Gobernua lanean ari da kanpo ekintzaren arloan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak finkatzen dion esparruan. Lege organiko horrek ezartzen du, batetik, Foru Komunitateak nola hartu behar duen parte Europar Batasuneko gai eta erakundeetan eta, bestetik, zein den eskumenen esparrua, bere interesak kanpoan defendatzeko eta haren irudia nazioartean proiektatzeko.

Azken urteotan, areagotu da Nafarroako Gobernuaren kanpo ekintza. Ordezkaritza berriz ireki du Bruselan, sare eta foro berrietako kide egin da eta mundu mailako ekitaldietan hartu du parte. Ekitaldi horietan aurkeztutako ekimen batzuek oso balorazio ona izan dute, esaterako, hondakinen politikari dagokionak –klima aldaketaren gainean San Frantziskon egin zen gailurrean (COP) munduko 12 ekimen aitzindarien artean sartu zuten, Tokiorekin, Amsterdamekin edo Nueva Yorkekin batera—. Horri guztiari gehitu behar zaizkio enpresa eta lurraldea nazioartekotzeko eta atzerriko inbertsioak erakartzeko egindako ahaleginak. Nafarroako Nazioarteko III. Plana nabarmentzen den esparrua, hain zuzen ere.

Bestalde, Nafarroako Gobernua europazale petoa da, eta Europar Batasunaren balioekin bat egiten du erabat: askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide estatua, tolerantzia, aurrerapena eta giza eskubideen errespetua. Europar Batasunaren parte izateak garapen eta kohesio soziala ekarri dio Nafarroari eta, horri esker, gure komunitatea Europako eskualde garatuenetako bat da.

Europako ekintzak tradizio luzea du Nafarroako Gobernuan. Izenak eta departamentu-atxikipeak bat baino gehiago izan badira ere, beti beharrezkotzat jo izan da Europar Batasuneko erakundeetan parte hartzea.

Zehazki, Nafarroak zuzenean hartzen du parte Europako erabakietan, hain zuzen ere [Europar Batasuneko Kontseiluan](#), [Europako Batzordeko](#) komiteetan, Europar Batasunarekin Zerikusia duten Gaien Konferentzian ([CARUE](#)) eta Eskualdeen Europako Komitean ([CDR](#)), non Nafarroako lehendakari andrea ordezkaria baita.

2016ko urtarrilaren 25ean argitara eman zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean 33/2015 FORU AGINDUA, abenduaren 29koa, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak emana, zeinaren bidez sortu baitzen [Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren Ekintza Lantaldea](#). Kideak hauek ziren:

- Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilaria
- Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaria

- Garapen Ekonomikorako Departamentuko kanpo ekintzarako arduraduna.
- Nafarroako Gobernuako departamentuetako ordezkari bana, kasuko kontseilariak izendatua.
- **Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren** ordezkari bat
- **SODENA**ren ordezkari bat
- **ADitech**-en ordezkari bat
- Pertsona bat egoitza Nafarroan duen **unibertsitate** bakoitzeko.
- **Merkataritza Ganbera**ren ordezkari bat
- Nafarroan egoitza duten operadoreen bi ordezkari, Europar Batasunaren inguruko jarduerekin lotura dutenak
- Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuaren idazkari tekniko nagusia

2016ko uztailaren 27an, Gobernuak [Europako Ekintza Plana](#) estreinakoz onartu zuen, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzako Ekintza Lantaldearekin batera, eta balio izan zuen Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzan egindako ekintzak neurtu eta kuantifikatzeko.

Europako Ekintza Plan hau ahalegindu zen Nafarroaren presentzia indartzen Europako instituzio eta erakundeetan, Nafarroako entitateen itzulkina hobetzen Europar Batasuneko diruak lortzeko tenorean, eta Foru Komunitatea kanpoan sustatzeko estrategia sostengatzen.

Gainera, 2017an, Nafarroako Gobernuak Nafarroarako berezko **egoitza** berria berreskuratu zuen Bruselan, Europako Parlamentutik 200 metro eskasera. Egoitza horretan bilera eta hitzaldietarako gelak daude eta horrek aukera eman du Europako hiriburuan ahots propioa izateko, kontuan izan behar baita Bruselan daudela Europako eta nazioarteko 1500 erakundetik gora, 160 enbaxada, Europako elkarte eta federazio profesional gehienak, atzerriko 60 banku baino gehiago, nazioarteko 1700 enpresa, abokatuen nazioarteko kabineteak eta kontsultoriak (300dik gora) eta nazioarteko 21 eskola.

Bruselan dugun ordezkartzaren bitartez zenbait saretan parte hartzen dugu eta haietako batzuen buru ere bagara, hala nola [VANGUARD INITIATIVE](#) (S3-ko lotura duten 36 eskualde), [ERRIN](#) (European Regions Research and Innovation Network), edo [EURADA](#) (European Association of Development Agencies, SODENAren koordinatuz), [eta Espainiak Belgikan eta Luxenburgon duen Merkataritza Ganbera Ofizial](#)arekin elkarlanean aritzen gara. Halaber, Nafarroako Gobernuako departamentuek beste sare batzuetan hartzen dute parte, esaterako honako hauetan: Climate Group, Covenant of Majors, ICLEI, Regions 4, ACR+, EUROMONTANA, NPLD, Social Economy Europe edo REVES.

Urte horretan berean, 2017an, [sartu](#) zen [Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdean](#). Elkarte hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1082/2006 (EE) Erregelamenduari lotutako Lurralde Lankidetzarako Europako 68 elkarteetako bat da, hor parte hartzea adostu duten estatu, eskualde edo erkidegoez osatua. Helburu nagusia da lurralde arteko lankidetzazeharkako eta globala egitea Europaren ikusmoldetik abiatu.

Euroeskualde horrek 101.678 km² ditu, 8.745.629 biztanle, 3.541.000 enplegu, 486.176 enpresa eta 11 unibertsitate. Orduetik hona, Nafarroako entitateek [onura atera](#) diete, batetik, "Euroeskualdeko herritartasuneko" proiektuetako deialdiari (helburua da kultura, hezkuntza, gazteria, herritartasuna, kirol eta eleaniztasunean hiru lurralderen arteko harremanak sustatzea), eta, bestetik, "Jakintzaren ekonomia" proiektuetako deialdiari (helburua da metodo, produktu edo zerbitzu berritzaileak garatzeko proiektuak bizkortu eta handitzea eta, hartara,

"Unibertsitatek enpresara" jardueran erreferente diren eragileak euroeskualdeetako kolaborazio estrategikoen inguruan elkartzea). Horretaz gainera, Nafarroa Euroeskualdean sartu zenetik, Nafarroako entitateek [elkarte estrategikoak](#) eratzeko aukera izan dute eta Nafarroako Gobernuak erdietsi du lurralde mugakideen arteko harremanak hobetzea eta, orobat, modu koordinatuan aritzea eskualde horietako herritarrek dituzten arazo eta oztopoak konpontzeko.

Nafarroako Gobernuak eskualde askotako lankidetzak erakunde batzuetako kide da, eta aktiboa da mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko politiketan. Horren frogak da [Eskualde Periferikoen eta Itsasaldeko Konferentzia](#)ko partaidetza (erakunde horretan biltzen dira Europar Batasuneko 24 estatuak 150 eskualde baino gehiago, hots, 200 milioi lagun baino gehiago). Hala, konferentzia hori Europako lurraldearen garapen orekatuago baten alde dago. Pirinioez gaindiko [Konferentzia Atlantiko](#)ko kide ere bada. Lankidetzarako entitate hau 2007. urtean eratu zuten Bidasoa ibaiaren bi aldeetako agintari publikoek mugaz haraindiko hurbileko lankidetzak indartzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoari batu zitzaizkion Gipuzkoako Foru Aldundia, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua, Akitania Berriko Eskualdeko Kontseilua eta Euskal Hirigune Elkargoa. Pirinioetako Prefekturak ere parte hartzen du.

Halaber, foro hauei gehitu behar zaizkie lankidetzarako ohiko guneak, hala nola [Pirinioetako Lan Elkartea](#) (CTP), Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako programa operatiboa (Interreg IVA - POCTEFA) kudeatzeko agintari moduan ari den mugaz haraindiko lankidetzarako eskualde arteko partzuergoa. 2014-2020 aldian 190 milioi euro baino gehiagoko funtsa kudeatu zuen (diru horretatik 20 milioi euroz baliatu ziren Nafarroako entitateak, hala nola udalak, enpresak, unibertsitateak, zentro teknologikoak, sozietate publikoak...). Era berean, Nafarroako administrazio arteko lankidetzak formal historikoa du Pirinio Atlantikoetako Departamenduekin (Akitania Berria), zeinaren hitzarmena 2020. urtean berritu baitzen. Fruituak eman ditu segurtasunean eta babes zibilean, kulturean, gazterian, kirolean eta abarretan.

Bestalde, Europar Batasuneko egoteko beste modu bat da EBko finantza-aldi bakoitzeko deialdietan parte hartzea, Europako proiektuak norgehiagokako araubidean garatuz. Espainia 1986an Europar Batasunean sartu zenetik, Nafarroako Gobernuak mota askotako entitateei finantzaketa lortzeko laguntza eman die eta, horrela, Europar Batasunerako interesgarriak diren programen eta tresnen gaineko ezagutza sakona eskuratu du. Horretaz gainera, azken urte hauetan zenbait neurri ezarri da funtsak hobeki bereganatzeko, gure eskualdeari esleitu eta Foru Komunitateko Administrazioak zuzenean kudeatzen dituzenez harago. Adibide gisa:

- Eguneratutako informazioa biltzen duen [web-atari](#) bat sortu da, informazioa formatu eskuragarrian hedatzeko, ezinbestekoa, bestalde, Nafarroako entitateek parte hartzen duten programen, tresnen, deialdien eta proiektuen gainean dagoen informazio ugariaren berri emateko eta, orobat, sariak, ekitaldien agenda, buletina eta berriak erakusteko. Web-atari honek ordezkatzen ditu Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzak prestatutako eduki-orria eta Nafarroako Nazioarteko Planarena.
- Europako Batzordeko deialdietan parte hartzeko aukeren diagnostikoa prestatzea Nafarroako Gobernuko departamentu guztietarako.
- [Prestakuntza jarduerak](#) egitea, zuzenean edo NUPekin lankidetzan, esaterako, I+G+b-ko proiektuak sustatu eta kudeatzeko espezializazio ikastaroa.

- Posizionamendu aktiboa sustatzea EBko ekimen eta sareetan, [ADITECH fundazioarekiko hitzarmenaren](#) laguntzaz. Mota guztietako 1.500 saretik gora daude EBn. Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroari gehien interesatzen zaizkionei jarraipena egiten die.
- [Komunikazio-gida praktikoa](#) prestatzea Europako proiektuen kudeatzaileendako.
- Networking-eko taldeak koordinatzea eta zenbait programatan, bereziki POCTEFAn, ari diren Nafarroako entitateei laguntza ematea [NAVARREFA](#) izeneko sare baten bitartez, Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea, edo Gobernuko departamentuetako, sozietate publikoetako eta SINAI eragileetako proiektu europarren kudeatzaileekin bilerak egitea.

Halaber, Gobernuko beste egitura batzuetako administrazioan dauden beste neurri batzuk (laguntza programak). Esaterako:

[I+G+b finantzatzen duten nazioarteko eta Europar Batasuneko programetarako proiektuak definitu, prestatu eta aurkezteko aholkularitzarako gastuetarako laguntzak](#) enpresa, zentro teknologiko, ikerketa erakunde eta unibertsitateetarako;

[Nazioarteko lankidetzan I+Gko proiektuak egiteko laguntzak, medikuntza pertsonalizatuaren esparruan. PerMed 2019](#) (ezagutza ikertu eta hedatzen duten erakundeetarako –unibertsitateak eta ikerketa zentroak–, ospitale publiko edo pribatuetarako eta enpresetarako);

[Nazioarteko lankidetzan I+G proiektuak egiteko laguntzak, fabrikazioaren teknologia aurreratuen esparruan](#), MANUNET. [Izaera turistikoko](#) edo [ingurumen arloko](#) proiektu programatuak kofinantzatzeko laguntzak (bi kasuetan toki entitateendako)

2018ko urtarrilean estreinakoz argitaratu zen [Europa Hurbilago](#) laguntza lerroaren deialdia, helburu duena Nafarroako enpresei laguntza zehatza izateko aukera eskaintzea Europako proiektuen arloan laguntzen deialdietara aurkezteko prestatzen ari diren proposamenak hobetzeko, eta modu horretan Nafarroako enpresek aurkeztutako proposamen horien arrakasta maila areagotzeko, Foru Komunitatearen lurraldera Europako funts gehiago erakarriz.

Deialdi honek finantzatzen ditu, batetik, Europarako proposamenak prestatzeko prestakuntza ikastaro praktikoa bat, eta, bestetik, Bruselara antolatutako bidaia bat, onuradunak Nafarroako proposamenak hobetuko dituzten eragile nagusiekin elkar daitezten; bidaia hori antolatu da Europako Batzordeko harreman-guneekin, Enterprise Europe Network-ek Nafarroan duen ordezkariarekin eta Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren Bruselako bulegoarekin (SOST) elkarlanean.

Urte eta hilabete berean, hots, 2018ko urtarrilean, Bruselako ordezkariaren ekimenez, Nafarroako Gobernuak egitura informatibo garrantzitsua abian jarri zuen Nafarroako S3 Estrategiei lotutako lau arloren inguruan: Automozioa eta Mekatronika; Elikakatea; Energia berriztagarriak eta Baliabideak; eta Osasuna. Eta, orobat, zeharkako gaiak: eraldaketa digitala, ekonomia zirkularra, enpresa txiki eta ertainen eskalatzea, smart cities-ak..., besteak beste. Helburua Europa gure erkidegoko eragileei hurbiltzea izan zen, eta Europako erakundeetan ardurako karguetan dauden pertsonak hartu zuten parte, hala nola Europako Batzordeko zuzendaritza nagusietakoek, Agentzia Exekutiboetakoek, IZE-koek, BBI-JU-koek...

[Topagune iraunkor](#) hauei esker, entitate interesdunek orain arte aukera izan dute informazio xehe eta ongi egituratua eskuratzeko eta EBko sareen, ekitaldien, politiken, lege erreformen, funtsen eta programazioaren gaineko Europako zenbait ekimenetan parte hartzeko.

Ekintza hauek guztiek ahalbidetu dute Nafarroako entitate eta enpresek funtsak bereganatzea. Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek, guztira, [ia 70 milioi euro](#) eskuratu dituzte Europako funtsetatik: Europar Batasunaren azken finantzaketa-aldian (2014-2019) zehar Nafarroak 209 proiektutan parte hartu du. Nabarmentzekoak dira Horizonte (24,7 milioi euro), mugaz haraindiko lurralde arteko lankidetzak (24,1 milioi), LIFE (12,5 milioi) eta Erasmus+ (1,9 milioi). Hala ere, diru-kopuru hori hobetu behar da.

Bestalde, Nafarroako Gobernua kanpo ekintzaren arloan lantzen ari den beste lan-ildo bat da atzerrian dauden nafarren arteko harremanak sustatzea. Orain arte erakunde mailan landu da gai hori, Espainian eta atzerrian dauden nafarren etxeekin. Ildo horretan eta migratzaileen fenomeno berriak kontuan hartzeko, Nafarroako Gobernuak 2019ko martxoaren 27an kanpoan bizi diren nafarrendako [NEXT Estrategia](#) onartu zuen. Estrategia horren helburua da Foru Komunitatetik kanpo bizi diren nafarrekiko lotura indartzea, haien itzulera errazteko, lan sareak sortzeko, talentuek ihes egitea ekiditeko eta Nafarroa mundu osoan sustatzeko.

NEXT Estrategia hiru ardatzetan egituratzen da. Lehendabizikoa “Komunikazioa eta konexioa” deitzen da, eta helburua du Nafarroaren eta kanpoan bizi diren nafarren arteko komunikazioa indartzea, Foru Komunitateko kide izatearen sentimenduari eustea, kanpoan bizi diren nafarren arteko kontaktua erraztea eta diaspora nafarraren jorei erreparatzea.

Bigarren ardatzak, “Atxikipena eta itzulera” izenekoak, helburua du emigrante nafarrak Nafarroara beren borondatez itzul daitezen erraztea eta gogoz kontra inor Foru Komunitatetik kanpora joan dadin ekiditea, baita atxikipen eta itzuleraren gaineko politikak lerrokatzea Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategiarekin (S3).

Azkenik, “Kooperazio aktiboa” ardatzaren helburua da kanpoan bizi diren nafarrekiko lankidetzak sustatzea, lankidetzak sarea eraikitzea eta Foru Komunitatearen nazioarteko proiektzioan laguntzea.

Estrategia hau garatzeko, parte hartzeko prozesu bat egin zen eta hartan hartu zuten parte Foru Komunitatetik kanpo bizi diren 100dik gora nafarrek, 33 herrialdetan banatuek, diaspora nafarreko kideen 19 senidek, Nafarroako eragile ekonomiko eta sozialek, eta Nafarroako Gobernuko zenbait departamentutako kideek. Horretaz gainera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kutxa fundazioarekin [hitzarmen](#) bat sinatua dauka, talentuari eusteko eta talentua itzultzeko politiketan elkarlanean aritzeko.

1. LEGEGINTZALDI BERRIA (2019-2023) ETA NAFARROAKO GOBERNUAREN KANPO EKINTZARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA SORTZEA

2019an hasitako legegintzaldiak berekin ekarri zuen gobernuaren egitura berria eta, horren barnean, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren barnean Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia sortzea. Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritza -orain Nafarroak Europar Batasunean duen Bulego Iraunkorra- zuzendaritza nagusi horri atxiki zaio eta haren eskumenak dira atzerrian dauden nafarrekiko harremanak, mugaz haraindiko lankidetzak eta Europako gaiak bultzatzea. Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren helburua da Nafarroako Gobernuaren kanpo jarduna koordinatu, harmonizatu eta profesionalizatzea, diplomazia paraleloa egitea (halaxe ezagutzen da akademikoki jardun hori). Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren jardueraren ikuspegi estrategikoak kontuan izan behar du gaur egungo errealitate geopolitikoa, Nafarroaren mugaz haraindiko testuingurua Europar Batasunean zabaltzen ari diren aukeren esparru berrian, eta gure herritarrak atzerrian egiten ari direna.

Otsailaren 3ko 7/2021 Foru Dekretuak, zeinaren bidez aldatzen baita Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen urriaren 30eko 271/2019 Foru Dekretua, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiari eskumen hauek esleitzen dizkio:

- a) Nafarroako kanpo ekintza planifikatu, koordinatu eta bultzatzea, Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin elkarlanean.
- b) Europar Batasunaren aurrean Nafarroaren interesak ordezkatzea, eta horiek sustatu eta babestea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste organo batzuei esleitutako eskumenak galarazi gabe.
- c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Europako eta/edo nazioarteko erakundeen arteko harremanak koordinatzea, Nafarroarentzat interesekoak diren proiektuen eta programen jarraipena egiteko.
- d) Foru Komunitateko Administrazio unitate organikoekin koordinatzea Espainiako eta nazioarteko erakundeekin hitzarmenak, akordioak eta protokoloak izenpetzeko, Nafarroako kanpo proiektzioa sendotzea helburu.
- e) Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroak duen Bulego Iraunkorreko zuzendaritza.
- f) Nafarroako Gobernuaren Kanpoko Ekintza Planaren garapena.
- g) Mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak harremanak bultzatzea eta koordinatzea.
- h) Kanpoan dauden nafar taldeekiko harreman eta arreta politikaren plangintza.
- i) Nafarroaren irudia sustatzea, haren sustapenarekin eta kanpo proiektzioarekin.
- j) Administrazioa itzultzeko laguntza, Europako proiektuetan parte hartzearen bidetik.
- k) Indarra duten xedapenek Herritarrekiko Harremanetako Departamentuari esleitzen dizkioten beste batzuk, zuzendaritza nagusiak bere duen esparruan, eta bere jardueraren eremuan agintzen zaizkionak.

2. KANPO EKINTZARAKO PLANAREN ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Aurrekari horiek ikusirik eta kontuan izanik Nafarroako Gobernuak gai honetan gaur egun duen egitura organikoa, Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiak beharrezkotzat jo du Kanpo Ekintzarako Plana prestatzea, haren jarduera eta estrategiak hiru ardatz hauen inguruan gauzatzeko:

A) NAFARROA EUROPAN: Diplomazia instituzionala EBn

Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren helburua da Nafarroako Gobernuaren kanpo jarduna koordinatu, harmonizatu eta profesionalizatzea, diplomazia paraleloa edo instituzionala egitea (halaxe ezagutzen da akademikoki jardun hori). Alde horretatik, Nafarroak atzerrian duen presentzia modu holistikoa sendotu nahi da eta ikusmolde osagarri eta laguntzailea eman nahi zaio beste departamentu batzuek enpresaren nazioartekotzean, lankidetzan, proiektzioan eta abarretan egiten duten lanari. Lan hori egiteko helburuak eta tresnak honako hauek dira:

- Nafarroak Europako erakunde eta organismoetan duen presentzia indartzea
 - o EBko Kontseilua, Komitologia, Eskualdeen Batzordea, CARUE
- Nafarroak Europar Batasunean duen Bulego Iraunkorra (Bruselako ordezkartza)
- Nafarroako Gobernuaren Europako Proiektuetarako Bulegoa
- Europako foroetan, elkarreetan eta sareetan parte hartzea

B) NAFARROAREN MUGAZ HARAINDIKO ETA ESKUALDEEN ARTEKO LANKIDETZA: Lankidetzaren sustatzea

Bere kokapen geografikoagatik, Nafarroa estu lotuta dago herri mugakideekin eta horrek arlo horretan esperientzia aberatsa eman dio lankidetzan. Ia berrogei urte dira Pirinioetako Lan Elkartea sortu zela. Pixkana-pixkanaka, Nafarroa lankidetzarako beste foro batzuetan sartzen joan da eta herri mugakideen arteko hurbileko arazoak konpontzeko balio izan diote, baita Europaren aurrean posizioa hartzeko ere eta, azkenik, Europako proiektuetan parte hartzeko eta diru-funtsak eskuratzeko –halaxe gertatzen da POCTEFArekin–. Planaren xedea da honako esparru hauetan aktiboki parte hartzen segitzea:

- Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea (NAEN)
- Pirinioetako Lan Elkartea (CTP)
- Nafarroa – Pirinio Atlantikoak hitzarmena
- Pirinioez gaindiko Konferentzia Atlantikoa (CAT)
- Eskualde Periferikoen eta Itsasaldekoen Konferentzia (CRPM)

C) NAFARROA MUNDUAN: Nola ikusten duten Nafarroa kanpoan

Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia atzerrian dauden nafarren arteko harremanak eta haiei emandako arreta hobetzeko ekintzak garatzen ari da. Halaber, Nafarroaren irudia munduan sustatu, hedatu eta proiektatzeko lanean ari da, nazioarteko aliantza estrategikoak ehundu eta eraikitzen edo garatzen laguntzeko. Kanpo Ekintzarako Planaren xedea da haren politikak hobetzea lan esparru hauetan:

- NEXT estrategia :kanpoan bizi diren nafarrak
- Nafarren etxeak Espainian eta atzerrian
- Aliantza estrategikoak eta nazioarteko aliantzak
- "Nafarroa marka" irudia eta kanpo sustapena

3. EZTABAIDARAKO GALDERAK

Kanpo Ekintzarako Plana prestatzean, herritarren eta eragile sozioekonomikoen parte-hartzea errazteko galdera hauek egin nahi dira:

Nafarroa Europan

1. galdera - Zure ustez, positiboa da Nafarroak Europako erakundeetan duen parte-hartzea? Nola hobe daiteke? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.

2. galdera - Zure ustez, Nafarroarako egokiak dira Gobernu gaur egun partaide den Europako sareak eta foroak? Beste batzuetan hartu behar du parte? Zeinetan? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.

3. galdera - Zure ustez, Nafarroarako onuragarriak dira Gobernu Europako funtsak bereganatzeko hartzen ari den neurriak? Nola hobe daiteke Nafarroaren itzulkina EBko programa eta ekimenetan? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.

Nafarroaren mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak

4. galdera - Zure ustez, Nafarroarako positiboa da mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetzak? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.

5. galdera - Zure ustez, egokia da Nafarroak duen parte-hartzea Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdean eta mugaz haraindiko eta eskualdeen arteko beste foro eta konferentzia batzuetan (CAT, CRPM...)? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.

6. galdera - Zure ustez, onuragarria da Nafarroak duen parte-hartzea Pirinioetako Lan Elkartean eta POCTEFA entitate kudeatzailean? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.

Nafarroa munduan

7. galdera - Zure ustez, positiboak dira estrategian atzerrian bizi diren nafarrendako NEXT prestatu diren neurriak? Estrategia horretako ekintzaren baten edukia aldatuko zenuke? Beste neurriren bat sartuko zenuke? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.

8. galdera - Zure ustez, egokia da Nafarroaren irudia eta marka atzerrian sustatzeko egiten den politika? Nola hobe daiteke Nafarroaren posizionamendua (lurralde moduan) nazioartean? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.

9. galdera - Zure ustez, zer rol bete behar du Nafarroak kanpo ekintzaren arloan? Mesedez, arrazoitu zure erantzuna.